

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak AUTELSI saria jaso du Gobernu Irekia ekimenagatik

*Telekomunikazioen Erabiltzaileen eta Informazioaren Gizartearen
Espainiako Elkarteak ematen du saria*

Lunes, 20 de febrero de 2012

Nafarroako Gobernuak AUTELSI saria jaso du berriki gizarte- eta ingurumen-konpromisoaren kategorian Gobernu Irekia ekimenagatik. Ekimenaren asmoa Gobernuaren jardunaren gardentasuna eta erabakitze eta kontrolatzeko prozesuetan herritarrei parte hartzeko aukera ematea sustatzea da.



[Telekomunikazioen Erabiltzaileen eta Informazioaren Gizartearen Espainiako Elkarteak](#) urtero ematen ditu sariak eta Espainian informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) sektoreko sari garrantzitsuenak dira.

Nafarroako Gobernuak hirugarren aldiz jaso du AUTELSI sari bat. Aurreko biak 2004an ("012Infolocal Navarra" ekimenagatik) eta 2009an (AVANTIUS Nafarroako Prozesuen Kudeaketa Sistemagatik) lortu zituen, biak ere sektore publikoko proiektu edo ekimen teknologikoen kategorian.

Sariak banatzeko ekitaldia datorren martxoaren 1ean izango da eta, aurreikusi denez, Roberto Jiménez Alli lehen presidenteorde eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak jasoko du saria.

Erabiltzaile profesionalen elkarteak

Telekomunikazioen Erabiltzaileen eta Informazioaren Gizartearen Espainiako Elkarteak (AUTELSI) irabazi asmorik gabeko erakundea da eta telekomunikazioen eta informazioaren teknologien erabiltzaile profesionalen ordezkaria.

Haren helburua Espainian informazioaren gizartea garatzea da, eta telekomunikazioen zerbitzuekin loturiko gaien inguruko ezagutzaren azterlan, ikerketa eta hedapen objektiboa sustatzea.

2004tik AUTELSI sariak ematen ditu bost kategoriatan (gizarte- eta ingurumen-konpromisoa, informazioaren gizartearen garapena, produktibitatea hobetzeko berrikuntza teknologikoa, sektore publikoa eta IKTen dibulgazioa eta hedapena), baita sari bana bi pertsonari ere haien ibilbideagatik eta sektorearen garapenean emandako babesagatik.